

Yurt-a eta inperioa

M

ongoliako bizileku tradizio-
nolari yurta deritzo. Oihale-
txe borobil handi samarra
da bere erdian sua edukit-
zen duena. Mongoliarrak,

beraz, ibiltariak dira eta yurta
desmuntatu eta nonahi jar daitez-
ke bizitzen. Yurtaren barnealde-
aren egitura oso kodifikatua omen
dago. Esaterako, familiaburua
atearen parean jarri ohi da eta
sexu bakoitzari yurtaren alde bat
(ezkerra ala eskuina) dagokio.
Hainbat debeku eta arau errespe-
tatu behar ditu, bestalde, yurtan sartzen
denak: erdialdean dauden bi zutabe nagusien
artetik ez da igaro behar, ezin daiteke
luzaz zutik egon, eta, batez ere, erdiko sua
ez da ukitu behar, su hori, mongoliarrentzat,
unibertsoaren erdigunean baita. Eta ez naiz
orokortzen ari, edo modu abstraktuan hitz
egiten: yurta bakoitzaren erdialdeko sua da
unibertsoaren gunea. Hots, yurtak beste
unibertsoaren erdigune daude.

Beti interesgarria iruditu zait yurtaren sinbo-
lismoa, bere tradizionaltasunean postmoder-
noa baita erabat, unibertso polizentrikoaren
ideia bermatzen duenez gero. Gainera, espiritu
kolonizatuaren kontrako irudia eskaintzen
digu: hots, ez nago inoren menpe, ez nago inori
begira jakiteko nor naizen edo nolakoa izan
behar dudan, ni neu naizelako –edonon nagoe-
la ere– nire munduaren erdigunea.

Halere, ideala ez da errealtatea. Gure
mundua, oso postmoderno delako egunero
kontatzen zaigun arren, ez da yurta buruas-
kien sare zabal bat. Gure mundua –bai maila
geopolitikoan, bai maila sozialean– betiko
mundua da, botere kontrae-
sankorren lehiak egitura-
tzen duen xake taula bat,
zeinetan bakoitzak bere
funtzioa eta mugak dituen.
Erregeak, erreginak, alfalak,
dorreak, zaldiak... eta
peoiak. Eta xake taula mun-
dialean nahiz sozialean nola
mozorrotu egia bakar eta
krudela? Erregeak erakarri
egiten gaitu beste guztiok,
eta oro har gure gainetik

DANI BLANCO



Ur Apalategi



Basterretxea



Olasagerre

dagoenak erakarri egiten gaitu,
limurtu egiten gaitu.

Jakina, inork ez du halakorik
onartzen: “Burges handiak, ze
jende degeneratua eta misera-
blea!”. “Amerikako Estatu
Batuak, ze herri degeneratua
eta miserablea”... Baina ikusi
besterik ez dago prentsa larro-
saren arrakasta edota *hollywoo-*
diar zinemak nola moldatzen
dituen gure bizimoduak ohar-

tzeko (inkontzienteki) eredu horiei begira bizi
garela. Eta kontra-ereduen bila dabilenak
(mobida alternatiboetan dabilena, herri txikie-
tan ekoiztutako filmak baino ikusten ez
dituen zinefilo esnoba), nahigabeko aitortza
edo omenaldia egiten die uneoro eredu haiei,
zeren, funtsean, haien arabera hartzen ditu
erabakiak eta norabideak, haien aurka joateko
bada ere. Laburtzeko: inperioak erakarri egi-
ten gaitu.

Nire ideala yurta da. Nire errealtatea,
berriz, inperioaren menpe bizitzea. Honek ez
nau, haatik, ezkorra izatera eramaten. Ideala-
ren yurta mentala beharrezkoa dut inperioan
peoi gisa egunero bizitzen jarraitzeko. Inpe-
rioa exzitatutik eta aldi berean frustraturik
mantentzen nauen desiraren objektu ihesko-
rra da, nire ezina gupidagabeki oroitarazten
didana. Neronek uneoro berrasmatzen dudan
yurta, aldiz, duintasuna eta kontsolamendua
dakarzkidana. Gezur osasungarri eta eraiki-
tzailea. Yurt, sweet yurt...

Baina ezin gaitetzke yurtan zerraturik bizi
behor esne fermentatua edaten. Zeren gu ere
bagara inperio mota bat, azken finean. Gure
azken asteetako eztabaidarekin lotura egiteko,

Juanjo eta Josi, gure kultu-
rarekin munduan bizitzeko
ditugun zailtasunak deitoratu eta negarrari ematea
baino hobe genuke onartzea guk ere gureak baino
kultura ezdeusagoetatik ala gure inperioaren barne
periferietatik datozen liburuez paso egiten dugula

Juanjo eta Josi, gure kulturarekin munduan bizitzeko
ditugun zailtasunak deitoratu eta negarrari ematea
baino hobe genuke onartzea guk ere gureak baino
kultura ezdeusagoetatik ala gure inperioaren barne
periferietatik datozen liburuez paso egiten dugula

